

## 5. GAIA: HERRIEN UDABERRIA ETA SISTEMA LIBERALAREN KONTOLIDAZIOA

(XIX. mendean sartuko gara bete betean)

- Balore liberalen kontolidazioa.
- Sistema liberala eta Komunikazioa. Merkatu ekonomia kontolidatu egin zen, kapitalismo basatiaren garaia. Espazio banaketa gertatzen da. Emakumeak eremu pribatura eta gizonak publikora
- Lehen Industria Iraultza. Iraultzaileak diren gertaerak gertatuko dira, komunikazioari dagokionean. Teknologian agertuko diren asmakizunak aplikatuko zaizkio komunikazioari.
- Prentsa popularraren lehen belaunaldia. Eskuragarritasunaren lehen aukera, sistema liberalaren aukerak zabaltzen direlako eta prentsa merketu egingo delako.
- Iraultza liberalak (XVIII bukaera) XIX mendera sartzen gara iraultza mugimenduen testuinguruan
- Absolutismoaren erantzuna (Vienako Kongresua 1814-1815) berrezarkuntza ahaleginak absolutismorako, eta hain zuzen horri erantzuna emateko ondorengo hiru urteetan iraultza mugimenduak sortu ziren
- Herrien Udaberria: 1820, 1830, **1848** ⇒ langile mugimenduaren lehenengo ekintza antolatua, eta behin betikoz hemendik aurrera absolutismoa ez dela berriz berrezarriko planteatzen da.
- 1848-1870: Sistema Liberalaren Kontolidazioa ⇒ absolutismoa behin betiko bukatuko da eta liberalismoa ezarriko da eta honen barruan, goi burgesiaren baloreak dira gailentzen direnak.

### 1. SISTEMA LIBERALAREN KONTOLIDAZIOA (1848-1870)

Sistema liberala definitzen dute ondorengo mugimenduek:

- **KONTRAKTUALISMOA:** Subiranotasun politikoa gizakien arteko hitzarmenean oinarrituta. Gizarte liberal berriak konstituzio baten arabera antolatzen dira eta gizarte horren ideietatik kanpo geratzen direnak basatiak kontsideratuak dira.

- **NATURA** da munduaren printzipio ordenatzaile berria, ez jainkoa. Gizonak, arrazoimen zientifikoaren bidez natura [Egia] ezagutzeko kapaz da. Eta liberalismo klasikoaren garaian, hura kontrolatzeko gai da. Hau oso garrantzitsua izan zen, sistema liberala garatu baino lehenago noski hierarki sozialak bazeudela baina haiei emandako justifikazioa jainkoarekin lotzen zen. Baina garai honetatik aurrera arrazonamendu zientifiko bat emango zaio. Emakumeak burmuin txikiagoa dute eta beraz hierarki horretan azpian egongo da. Lehen berriz emakumeak gutxiesteko sorginak zirela eta *“está poseida por el diablo”* bezalako esaldiak erabiltzen zituzten aitzakia gisa. Emakumea izateagatik ez zara ez gehiago ez gutxiago, baina ezberdina zara, eta ezberdintasun hori zure gorputzak markatuko du. Eta noski segun eta ze gorputz duzun paper jakin bat edukiko duzu gizartean.
- **ARRAZOIMENA:** gauza guztiak arrazoia-aren menpe kokatu behar dira.
- **AURRERAPENA/GARAPENAREN ideia:** beti aurrera eta hobera egin daiteke. Giza perfektibitate kontzeptuan oinarritutako ideia. Gizon zuriek garapenerako ahalmen handiagoa dutela kontsideratzen da.
- **LIBERALISMOA:** Frantziako Iraultzarekin batera zabaltzen diren **ideal demokratikoak:** askatasuna, berdintasuna eta **jabetasuna** (berdinen arteko elkartasuna ondasunen arabera): gizon ezjabe eta emakume guztiak zibilizaziotik kanpo geratzen dira. 1848tik gailentzen hasten da liberalismoa eta ondorengo mugimenduen sozialismoak eta feminismoak zalantzan jarriko du liberalismo hau
- **NAZIONALISMOA:** Antzinako Erregimenarekin batera suntsitzen diren tokiko lokarrien, ziurtasunen eta tradizio guztien ordezkoa izango da. Ideologia bat baino, gizaki berdinen artean elkar identifikatzeko era da. **Soberania lortzeko bidea.**
- **SOZIALISMOA:** printzipio demokratiko iraultzaile horien **erradikalizazioa:** **eskubide guztiak** orokortzea, **unibertsalak bihurtzea:** gizonezko sufragio unibertsalaren bidez (XIX. mendean 2. erdian)
- **FEMINISMOA:** printzipio demokratiko iraultzaile horien erradikalizazioa **emakumezkoen parte-hartzea** arlo publikoan: sufragio unibertsala (XX. mendean zehar)

## 2. SISTEMA LIBERALA ETA KOMUNIKAZIOA

- Nazioko hiritar guztien adierazpen askatasun eskubidea (ez arbitrarioa) onartzen da.
- Aurretiko **zentsura eta lizentziaren** desagerpena. Publikoki eztabaidatzeko gaitasunak garapenera garamatza
- Kontrol forma berriak:
  - Prentsa gaineko **zergak** ⇒ prentsa luxuzko produktu bat bihurtzeraino
  - **Abisu sistema** ⇒ Frantziako eredua. Esan ezin daitezken gauzak ere badaude, eta hori babesteko abisu desberdinak daude. Lehenengo abisuan egunkaria astebetetz itxiko zaizu, bigarrenetan hilabetetz eta hirugarrenean aio pelai
  - Aurretiko **depositoa / kauzioa** ⇒ Aurretik ordaindu beharreko diru kantitatea, fiantza modukoa.
  - Historialari ezberdinek planteatzen dute, guzti honek arrazoi bat zuela. Herriak komunikatu ahal izatea arriskutsu ikusten zuten boterean zeudenek eta beraz zergak jartzen zizkien komunikatu ezin izateko

## 3. INDUSTRIA IRAULTZA ETA KOMUNIKAZIOA

- Ezagutza zientifiko eta teknologien garapena (zinema, telebista)
- Berrikuntzak industriara aplikatzen dira
  - Industria Iraultza
- Berrikuntzak komunikazioan aplikatzen dira
  - Berrikuntza guztiak XIX. mendean bukatzen dela esan ohi da, XX. mendean berrikuntza horien garapena gauzatzen delako. Etxekotze orokor bat ematen da (gizonezko soldaduak etxeratu, emakumezkoek lana kanpoan egin eta etxera... Denak etxean)
- Lehengaia: Egurrez egindako papera. Lehengaia aldatu egin zen eta oraina arte papera zapien egiteko masa batek egiten bazen orain egurrarekin egiten hasiko gara eta produktu hobeagoak egingo dituzte honekin

- **Prentsa (inprimatzeko aparatua):**
  - **Mekanikoa (F .G Koenig, 1812)**
    - Lurrin makinaren inkorporazioari esker. The Times izango da lehenengo hau erabiltzen
    - Prentsaren produkzioa azkartu
  - **Errotatiba (William Bullock, 1863)**
    - Zilindro bat izango da
    - Tirada batean produzitu ahal izango duguna oraindik eta handiagoa izango da
- **NOTIZIA AGENTZIEN agerpena (1835).** Telegrafoaren agerpenak ahalbidetuko du komunikazioa urrunetik (edo ez bertatik) egitea. Komunikazioa azkartzea ahalbidetuko du
  - **Agence Havas (Charles- Louis Havas)** Frantzia. Hau izango da lehenengoa. Agentzia hau sortu baino lehenago, Charlesekin kanpotik zetozen notiziak itzuli egiten zituen frantsesera kanpoko notiziak, eta egunkari ezberdinetara bidaltzen ziren informazioa (diru truk)
  - **Wolff (1849)** Berlinen
  - **Reuters (1851)** Londresen
  - **Agencia Stefani (1853)** Italian
  - **Agencia de Corresponsales (1865)** (Agencia EFE, 1939) falangearekin lotura
  - **The Associated Press (AP) (1849)** Estatu Batuetan. Egunkari ezberdinen arteko kooperatiba

1859an agentzia garrantzitsuenek (Agence Havas, Wolff eta Reutersek) akordio bat egingo dute beraien artean ez konpetitzeko. Munduan gertatzen diren berriak beraien artean partekatuko dituzte. Horrez gain, munduko eremuak banatuko dituzte komunikazioari dagokionez (komunikazio esparruak). Bakoitzaren eragin esparruan besteak ezingo dira sartu.

1875ean egiten duten bilkuran, agentzia garrantzitsuenen artean The Associated Press ere barruan sartu zen.

- Dagerrotipoa (Louis J. M. Daguerre, 1839) eta argazkigintza. Argazkiak ateratzeko modu artesanala
  - Prentsako “benetako” lehenengo argazkia (1880). Stephen H. Horganek ateratakoa, *New York Daily Graphic*en argitaratua.
- Publizitatearen garapena eta **\*PRENTSA POPULARRAREN AGERPENA**. Langileen borrokari esker, prentsaren gaineko zerga jaisten da, baita publizitatearena ere. Beraz, egunkarietan jarritako iragarkiak, diru iturri moduan erabiltzen hasten dira. Eta honek ondorio gisa ekarriko du Prentsa Popularraren agerpena

#### \* PRENTSA/KOMUNIKAZIO POPULARRAREN GARAPENA\*

- 1815-1870: Masa komunikazioaren lehenengo belaunaldia: Helburua goi burgesiako prentsa forma kopiatzea da, behe klasekoentzat eskuragarria egin ahal izateko.
- 1870-1914: Prentsaren urrezko aroa.
  - Masa komunikazioaren bigarren belaunaldia (80 hamarkada).
  - Masa komunikazioaren hirugarren belaunaldia (90 hamarkada).
- 1914-1945: Masa komunikazioaren laugarren belaunaldia → Irratia eta zinema.
- 1945-1990: Masa komunikazioaren bosgarren belaunaldia → telebista.

#### 4. PRENTSA POPULARRAREN AGERPENA HERRI EZBERDINETAN

- Prentsa popularra Erresuma Batuan.
- Prentsa popularra Frantzia.
- Prentsa popularra Estatu Batuetan.
- Prentsa popularra Espainian.

#### ERRESUMA BATUAN

- Unstamped (Intimbradoen) Mugimendua, 1830 urte inguruan. Tinbreari aurre egingo zion mugimendua izango zen tinbre zelako presan zegoen zergarik altuena
  - 1820 urte inguruan hasi zen.
  - Estatuaren legeei desobedientzia
  - Zergak ordaindu gabe ateratako prentsa legez kanpokoak.
  - Lema: "Paperaren gaineko zergak, jakintzaren gaineko zergak dira (Taxes on knowledge)
  - Mugimendu politiko eta sindikala (sozialismo utopikoa eta Kartismoa)
- Henry Hetherington:
  - Lider Kartista izan zen.
  - Unstamped mugimenduko buruzagi
  - Argitalpenak:
    - The Penny Papers for the People (1839)
    - The Radical (1831)
    - The Poor Man's Guardian (1831-1835)
- Errepresioa: atxiloketak, espetxeratzeak, isunak eta inprentak itxi.
- Gobernu aldaketarekin, jarrera aldaketa:

- Zergak jaitsi/desagertu. (Erresuma Batuko prentsa arautzen zuen zergak)
    - Iragarkiena 1853
    - Tinbre-a 1855
    - Paperena 1861
  - Isunak eta zigorrak gogortu.
- ONDORIOAK:
    - Kazetaritza zirkulazioaren hazkundera
    - Irakurtzeko ohituren aldaketa Zabaldu, orokortu, gehiago irakurtzen hasi. Aurreko garaietan kulb et akeafeetan soilik irakurri zezakeen jende aberatsak
    - Produktu eskuragarriagoa
    - Prentsa merkea eta kalitatezkoa (lehen belaunaldiaren ezaugarria)
    - *The Daily Telegraph* 1855 urtetik: Bai fisikoki zein edukien aldetik, *The Times* egunkariaren oso antzekoa da.
      - Kalitatezko prentsa.
      - Publiko zabalagoari zuzendua.
      - Irakurterrazagoa. Hizkuntza aldetik batez ere
      - Formak, prentsa elitistaren antza.
      - Klase ertainen egunkaria. Ez langile xumeena, hori aurrerago ikusiko dugu

## FRANTZIAN

- Britainiarekin alderatuko bagenu, politikoki egoera ez da hain egonkorra: ezegonkortasun politikoa.
- Askatasun eta errepresio aldiak tartekatu.
- 1851-1870 bitartean aldi autoritarioa. Nahiz eta sistema liberala nagusitu den aldi autoritario bat gailenduko da Frantzia eta honek eragina edukiko du Frantziako prentsan
  - Prentsa-epitegi bereziak
  - Zerga altuak (tinbrea bereziki)
  - Gobernuaren notizia jakinak publikatzeko betebeharra
  - Abisu sistema (hiru epetan gauzatzen den penalizazio moduko bat da) garrantzitsuagoa da zerga sistema baino. Lehenengo abisuan astebetzez itxiko du, bigarrenekoan hilabetez itxiko du, hirugarren abisuan betirako itxiko du gobernuak egunkari hori
  - Epitegi bereziak egongo dira prentsari dagozkion delituak epaitzeko.
  - Garai honetan ez zen garestia publizitatea txertatzea prentsan. Eta ez zen ohikoa gainera
- Publizitatea eta Émile de Girardin-ren La Presse (1836). *“Publizitateak ordainduko du harpidedunaren alea”*. Prentsa popularraren adibide Frantzia. Periodikoa publizitatea sartu nahi izango zuten enpresa horiek ordainduko zuten gehienbat. Klean egindako salmentak ere lagunduko dio publizitateari.
- Hiru bidetan lortzen zuten dirua:
  - Publizistek emandakoa
  - Harpidedunek emandako ale txiki hori
  - Erosleek periodikoa erostean emandakoa
- Estetikoki eta edukiaren aldetik oraindik ere formalak izango dira, nahiz eta elementu berriak barneratzen hasiko diren, geroko prentsa popularra askoz diferenteagoa izango da (titularrak hasteko diferenteak izango dira guztiz)



- Le Siècle (1836) eta folletoi delakoan hazkundera. Egunkari batean istorio bat kontatzen hasten da eta hurrengo egunekoan jarraitzen du. Horrela egunkaria erostera bultzatzen du jendea (estrategia).
- **Prentsa popular/herrikoia ordezkaritza nagusia: Le Petit Journal (1863):** Hemen aldaketa formalak ikusten hasten dira : egunkariaren tamaina txikiagoa, prezioa baxuagoa (merkeagoa)...
  - Moïse Polydore Millaud.
  - Entretanimenduko edukiak (zergarik ez).
  - Gustu eta lengoia herrikoia: gertakariak, kirolak, nobelak, denbora-pasak...
  - Formatu txikia eta prezio txikia. Klase baxuaren egunkaria zela esan dezakegu
  - Garaiko kazetaritza-praktikak irauli zituen. Frantziako testuingurua irauli zuen, Frantzian “komilla artean” bazegoen espezio bat publizitateko prezioen inguruan: entretanimenduzko publizitateak ez ziren ordaindu behar, politikaren inguruko publikazioek ordaindu behar zituzten zerga altuenak beraz entretanimendu gehiago sartu zen garai honetan, ez horrenbeste zerga ordaintzeko (testuinguru sozialean erabat txertatuta: herrietako gauza morbosoa, bizikleta lasterketak...)

## ESTATU BATUETAN

- New Yorken agertuko da prentsa popularraren lehen belaunaldiko adibiderik garrantzitsuenak.
- Oztopo administratibo gutxiago. Ez zeuden normalean agertzen dien oztopo administratiboak.
- Andrew Jacksonen agintaldia demokratikoa. Bere agintaldia apurba demokratikoa kontsideratu zen, klase ertainen ordezkaritza zela esaten da, ez hainbeste goi burgesia
- Prentsa nazionala sortzeko arazoa Estatu Batuarrentzat, beren lurraldearen erraldoitasuna zen, horregatik ziren prentsa erregionalak
- Prentsa erregionala.

- 1830 hamarkadan agertu zen **Penny Press**: Prentsa Popularraren lehenengo jenerazioa garatuko da. Eta guztietatik inportanteena NYkoa.
  - Publiko zabalera iristeko asmoa. Ez bakarrik goi burgesiari zuzendua, publiko zabalagoarentzat eskuragarria.
  - Prezio merkea (1¢).
  - Publizitatea.
  - Kaleko saltzaileak.
  - Alderdiekiko independentzia. Klase zabalen interesen aldeko filosofia edo ideia
  - Erakargarritasuna edukietan.
  
- New York da kazetaritzaren garapen handieneko eremua.
  
- Aldaketa nabariena edukietan dago, klase ertainari interesatzen zaion edukiak zabalduko dituzte, Prentsa Popularran tokiko gauzak kontatzen dira, irakurleari gertu dituen gertakarien inguruko informazioa interesatzen zaiolako gehiago Nazioartekoa baino. Oraindik ere aldaketa estetikoak ez da emango, soilik edukietan emango da aldaketa.
  
- *Penny Press* eta New Yorkeko lau erraldoiak:
  - **The Sun (1833)**. (“It Shinnés for all”) Guztiontzako zerbait da, eliteentzat izan beharrean guztiontzako.
    - Benjamin Day-ek sortua
    - Ipar Amerikako lehenengo adibidea
    - Iragarkiekin finantzatzen zen
    - Informazio sentsazionalista landu zuen
    - Itxura aldetik ez da oso erakargarria izango
    - Laster agertuko zaizkio konpetidore edo imitatzaileak. Oso eredu arrakastatsua izan baitzen.

- **New York Herald (1835)**
  - Jamen G.Bennet-ek sortua
  - Eduki zabalagoak, anitzagoak. Aurrekoak hasi zuen sentsazionalismo horretan sakonduko du
  - Irakurle eta iragarki aukerak zabaldu
  - Heald-ek Tribune erosi zuen 1924an.
  
- **New York Tribune (1841).**
  - Horace Greely-k sortua
  - Jarrera politiko agerikoagoa. Konpromiso politiko handiagoa Estatu Batuetan esklabutzaren inguruan, sufragisten mugimenduak... inplikatu agertuko da, ezkerreko jarrera edukiz
  - Kazetaritza popularra, baina ez hain sentsazionalista eta kritikoagoa
  - Sakoneko artikuluak (editorialaren garrantzia)
  - 1924. urtean *New York Herald tribune*. Heraldek Tribune erosten du eta nolabait esateko batu egiten dira
  
- **New York Daily Times (1851).** (“All the news that’s fit to print”)
  - Seriotasun handiagoa mantentzen saiatu zen. Eduki landuagoekin, kategoria izan nahi zuena.
  - Erreportaiak eta kalitatezko idazkera. Klase ertain altuagoentzako gustukoagoak dien gaiak landuko ditu (aurrekoak ziren Prentsa Popularrarentzat, herrikoentzat eta hau ia ertain-altuagokoentzat).
  - Informazio serio eta zintzoa.

- Sezesio Gerra (1861-1865)-ren eraginak prentsan:
  - Tiradak biderkatu ziren. Populazioari buruan sartu zitzaion beharrezkoa zela prentsa irakurtzea; beharrezkoa sortu.
  - Guda korrespontsalak.
  - Telegrafoaren erabilera masiboa, kazetaritzaren hizkuntza aldatu (lealeak). Notiziak emateko formetan eragina izango du,
  - Argazkiak frontean eta ilustrazioak prentsan.

## ESPAINIAN

- 1830 hamarkadako prentsa oso politizatua
  - El Español (1835-1848)
  - El Eco del Comercio (1834-
  - El Clamor del publico (1834-1849)
  - El Heraldo (1842-1854)
  - La Esperanza 1839-1868
- Seiurteko Liberala 1868-1874
- 1869ko konstituzioa eta prentsa askatasuna
- Teknologiak eta berrikuntzak:
  - Inprentaren hobekuntzak
  - Agentzien garapena
  - Erakargarriagoak (maketazioan), forman eta edukian
  - Ilustrazioak eta maketazioa ikusgarriagoak. Maketazioak kalitatezkoagoak izango dira prezio hobeagoan.
  - Eduki aniztasuna: politika, literatura, denbora pasak, anekdotak umorea, folletinak... “La flaca” aldizkaria oso adibide ona da. (Biblioteca Nacional de España eskuragarri)
- Hezkuntza eta prezio jaitsiera.

- Eredu anitzagoak agertu ziren:


## I. ILUSTRAZIODUN PRENTSA

- Produkzio hauen hazkundera ematen da
- Gertakarien informazioa eta gai kulturalak gehien jorratuko dituzten gaiak baina protagonismo handia izango dute ilustrazioen kontuak.
- Diseinu grafiko oso landua.
- ***La Ilustración Española y Americana*** (1869-1921)
- ***La Ilustración de Madrid*** (1870-1872)
- ***La Flaca. Revista liberal y anticarlista*** (1869-1873).
  - Aldizkari grafiko-satiriko garrantzitsuena. Batzuetan arazoak izan zituen horregatik. Eta itxialdi bat baino gehiago izan zituen.
  - Britainiar Punch-en antzekoa.
  - Joera politiko errepublikarra, federala eta antiklerikala.
  - Bartzelonan egiten zen, gazteleraz eta nazio-tirada zen (Itsasoz bestaldeko lurretan, Frantzia eta Italia). Lau orrialde.
  - Goiburu ezberdinak: La Madeja política, El Lío, La Madeja, La Carcajada, La Risotada, La Risa.
  - Tomás Pardo-ren ilustrazioak.

## II. PRENTSA INFORMATIBOA

- **La Correspondencia de España** (1859-1925) Nahiko kontserbakorra da
  - Kontserbakorra eta monarkikoa
  - Arratsaldekoa
  - Difusio handiena lortu zuen (50.000 ale baino gehiago)
  - Publizitatea

- Lehendabizikoa kaleko salmentan (2.000 bozeatzaile-banatzaile)
  - Informazioa eta bestelako gai anitzak: erlijioa, moda, kultura, espektakuluak, kirolak, folletinak... (eskelak)
  - Lau orrialde, zutabe anitzak, notiziak jaso izan diren ordenean antolatuak...
- **El Imparcial (1867-1933)**
    - XIX bukaera eta XX hasierako egunkari eraginkorrena
    - Zentralista eta eskuinekoa (**Nazionalismo periferikoaren kontra**)
    - Informazioa eta iritzia tartekatzen ditu
    - Lau orrialde; artikulu sakonak eta eguneko kronika. Miszelania politikoa eta revista de prensa. Irargariak eta folletina.
    - Havas eta Fabra-tik zetozen nazioarteko notiziak
    - Erdibidea lantzen du. (Ustezko) neutraltasun eta alderdikeriaren artean
    - 1874tik literatur gehigarria: *Los lunes de El Imparcial* (asteroko literatur-orriak)
    - Los lunes de El Imparcial (1879-1906)
  - **El liberal (1879-1939).** El imparcialeko langile batzuk aldegin ostean agertu zen
    - Errepublikarra.
    - Oso arrakastatsua.
    - Lehenengo tebeoak.



### III. PRENTSA ALDERDIKOIA ETA IDEOLOGIZATUA

- **Errepublikar federala:** *La igualdad* (1868-1874), *El Combate* (1870-1872), *La Renaixença* (1871-1905)
- **Karlistak:** *La egeneración* 1855-1873, *El Pensamiento Español* 1860-1874
- **Fuerista/liberala:** *Irurac-Bat* (1850-1885): Bilbon
- **Anarkista:** Bartzelonako *La Federación* (1869-1874)
- **Monarkikoa eta kontserbadorea:** *La Época* (1849-1936)